

Urte bat beteko da hilaren 29an Donibanen Itsas Mendi Udal Liburutegia zabaldu zutela. Arrakasta handia izaten ari da, baina gauza dezente hobetzeko dituzte oraindik

Urko Etxebeste

Urtebete beteko da hilaren 29an Donibaneko liburutegia berriz ere ofizialki inauguratu zutela: Itsas Mendi Udal Liburutegia. Hamabi urtez izan ziren sanjuandarrak liburutegirik gabe, eta, herritarren lanagatik, berriz ere lortu zuten Donibanek hain beharrezkoa zuen azpiegitura izatea. Egun, behin-behineko egoeran dago Itsas Mendi Udal Liburutegia, aurrerago beste egoitza bat izango duelako, handiagoa eta erosoagoa.

Ongi asko daki Arantxa Sagarzazu sanjuandarrak zenbat lan egin behar izan zuten Itsas Mendi elkartean, eta, oro har, Donibane osoan, liburutegia berriz ere izateko. Liburutegiaren Aldeko Batzordeko kide da Sagarzazu, eta hainbat ekimen egin zituzten herritarrek liburutegiaren beharraz jabetu zitezten, liburutegiaren alde lanean hasteko: sinadura bilketak, politikariekin elkarriketak, liburutegi zaharrean zeuden liburuak sailkatu eta ordenatu, liburuak gordeak zeuden tokitik liburutegi berrira eramatea... Mila gauza. Egia esateko, Liburutegiaren Aldeko Batzordean ez gaude garai batean bezain gogor lanean. Baina, lehenik eta behin, azpimarratzekoa da orain behin-behinean dagoela liburutegia Itsas Mendiren liburutegia zenean. Zenbait kokapenez hitz egin da, baina orain, ziur, ez dago ezer.

Izan ere, 2006ko apirilaren 29an ofizialki Itsas Mendi liburutegiaren inaugurazioaren egunean, Margari Etxarri Itsas Mendi Kultur eta Kirol Elkarteko lehendakariak aurrerantzean liburutegia bultzatzeko eta indartzeko ardura Udalarena zela nabarmendu zuen; Baina gu, beti laguntzeko prest egongo gara, ahal den eperik laburrenean behin betiko kokapena aurkitzeko, esan zuen Etxarrik. Horregatik, Arantxa Sagarzazuk azpimarratu du liburutegia zabaldu zutenean zeuden zenbait gabezi oraindik ere mantentzen direla. Adibidez, liburuak sailkatzeko Absys programa informatikoa ez dago jarria oraindik, eta Pasaiaiko beste liburutegiekin ez dago Internet bidez lotua. Liburuzaina ez dago egun osoz lanean, liburu gutxi daude... Gabeziak daude, nabarmena da hori.

265 bazkide

Gabeziak gabezi, zabaldu eta berehala onarpen handia izan zuen Itsas Mendi udal liburutegi berrituak sanjuandarren arten. Horren erakusle, lehen hamar egunetan 100 pertsonak bazkide izatea erabaki zutela; egun, 265 bazkide ditu liburutegiak, eta bertan 2.500 liburu inguru daude. Marga Anzueta da bertako arduraduna, eta urtebeteko esperientziak emandakoen berri eman du. Bazkiderik gehienak haurrak dira. Eta, beraz, orokorrean erabiltzailerik nagusienak haurrak dira. Heldu askoz gutxiago

daude, eta hauen artean nagusi emakumeak dira, azaldu du Anzuelok. Haurrak batez ere etxeko lanak egitera doazela jakitera eman du liburuzainak, baina liburuak maileguan ere hartzen dituzte. Orain, azterketa garaia hurbil dagoela nabaritzen hasi naiz, gazteak ikastera etortzen hasi direlako pixkanaka-pixkanaka.

Sanjuandarren artean liburutegia berriz ere zabaltzeak onarpen handia izan duela nabarmendu du liburuzainak. Horren adierazle antolatu genuen tailer bat izan zen. Zirko antzeko bat egin nahi izan genuen liburutegian: azkenean pentsatua genuena ezin izan genuen egin, haur gehiegi azaldu zirelako; pentsa!.

Hala ere, oraindik hainbat gabezi daudela jakitera eman du liburuzainak. Liburuak sailkatzeko nire kabuz moldatzen naiz, ez daukagulako sailkatze programa berezirik oraindik. Liburua berriak badatoz, baina ez asko. Pixkanaka-pixkanaka goaz bidea egiten.